

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2011ko uztailaren 29a. VIII. urtea. 2.266. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Alegiako Franconi Fundazioaren etxea hutsik geratuko da

32. urte daramatzate bertan salasiarrek; egun bertan bizi diren hiru mojak ordenaren beste etxe batzuetara joango dira ◦6



Asun Salaberri eta Arantza Azpiazu moja salasiarrek. I. GARCIA

Udako oporraldia

Lantaldearen udako oporraldia dela eta, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA-ren hurrengo zenbakia irailaren 6an jasoko duzue.

Regillaga eta
Leunda
tolosarrak
Monegrosen
nagusi ◦3



Uzturreren magalean, hamahiru gazte eta hiru monitore ari dira 1845eko dorre telegrafikoa konpontzen. I. URKIZU

Auzolanean berrituz

Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituen udako auzolandegietan 18 eta 26 urte bitarteko gazteak etorri dira, dorre telegrafikoa konpontzera ◦2

XEHETASUN TXIENETAN ERE KALITATEA NAGUSI



TOLOSA MOTOR, S.A.
PEUGEOT KONZESIONARIOA
San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA

Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938
tolosa@tolosa.redpeugeot.com

P-308
BERRIA



Eusko Jaurlaritzak urtero antolatzen dituen auzolandegien barruan, Uzturreren magalean dagoen dorre telegrafikoa konpontzen eta eraberritzen aritu dira, uztaila osoan zehar, hainbat gazte.

Aspaldiko albisteen begiratokia

Itzea Urkizu

Guda karlistaren ondoren, 1845. urtean eraiki zuten Uzturreko dorre telegrafikoa. Uztaila osoan zehar, auzolandegietako hainbat gazte dorrea konpontzeko lanetan aritu dira.

Bigarren urtez ari dira Uzturreko dorrea konpontzen, auzolandegietako gazteak. Laz nazioarteko neska-mutilak aritu baziren ere, aurten, Euskal Herriko eta Espainiako txoko desberdinetatik etorri dira gurera. Horrela beraz, azken bi asteotan, Gasteiz, Bilbo, Galizia, Sevilla, Granada, Teruel eta Valentziako gazteak aritu dira, hiru begirale euskaldunekin batera, dorrea eraberritzen.

Udako auzolandegi hauek Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu urtero. Parte hartzen duten 18 eta 26 urte bitarteko gazteak, beren erkidegoan ematen dute izena, eta gehien interesatzen zaien norakoa hautatzen dute.

Eguneroko lana

Egunero, goizez aritzen dira Uzturreko dorrean lanean, 10:00etatik 13:00era bitarte. 11:30etik 12:00etara, atsedena egiten dute, eta hamaiketako jateko probesten dute tartetxoa.

Besteak beste, dorrearen barruko aldea garbitzen eta hormak eraberritzen aritu dira, Esti Etxaide begirale donostiarrak azaldu duenez: «Bigarren hamabostaldiko taldearekin ezin izan dugu lan gehiegi egin, eurria dela eta egun askotan etorri gabe geratu baikara», dio Etxaidek. Hondatuta dauden paretak piktokaz jotzen dituzte, ondoren porlanak konpontzeko. Era berean, belarrak kendu eta dorre barruko hariak kanpora ateratzen dituzte, hauekin egiturak osatuz.

Auzolandegiko gazteek Samaniego ikastetxea izan dute egoitza



Bi talde aritu dira uztailaren lanean, eta talde bakoitzak hamabostaldi bat igaro du Tolosan. I. URKIZU

hamabost egunetan zehar. Bertan egin dute lo, eta baita gosaldia, bazkaldu eta afaldu ere. Bertatik, ordu bete inguruko bidea dute dorrea dagoen lekuraino, eta oinez igo nahiz jaisten dira. Lanerako tresnak lehenengo egunean igo zituzten gora, traktoreaz baliatuz.

Aisia ere bai

Eguneroko lanaren ondoren, begiraleek hainbat ekintza antolatzen dituzte arratsalde nahiz gauekarako. Besteak beste, Usabal kiroldegiko igerilekura joaten dira iluntzetan; «Spa eremua da gehien gustatzen zaiguna», dio Etxaidek.

Horrez gain, asteburuetan irteerak burutu dituzte Euskal Herriko txokoetara. Gaztelugatxe eta Donostia bisitatu zituzten, eta eguraldi hobexegoaren bila Bardeeta ere joan ziren.

Gaur, auzolandegietako azken eguna izaki, afari berezia antolatu dute; bakoitzak bere herriko plater tipikoa prestatu beharko die lagunel.

Euskal Herria ezagutzera

Aipatu bezala, gazte bakoitzak aukeratzen du zein auzolandegietara joan nahi duen. Sevillako Carlos Garciak, bigarren aldiz bizi izan du auzolandegien esperientzia, eta «oso ona» izan dela azaldu du. Tolosa aukeratu zuen, data ondo zetorkiolako, alde bateatik; gainera, «Euskal Herria ez nuen ezagutzen, eta bertako kultura ezagutu nahi nuen», dio Garciak.

Besteak beste, egiten dituzten jarduerak azpimarratu ditu, eta begiraleak euskaldunak izatea ere oso egokia iruditzen zaio, hementxo hiturak kontatzen baitzikiete. Tolosa «asko» gustatu zaio-

la ere nabarmendu du; «guztia oso ondo zaindua dago, bai eraikina, eta baita kulturaren alderdia ere. Kontzertuak, museoak, ... Eguraldia izan da alde txar bakarra».

Rebeca Fernandez, berriz, Galiziatik etorri da, eta bere lehen aldian izan da aurtengoa, auzolandegietan. Atzerrian ezagutu zuen lagun euskaldun batek gomendatu zion hona etortzea, eta lagun batekin etorri da Tolosara. «Lana gogorragoa izango zela uste nuen, eta gainera, hainbat jarduerara egiten ditugu», dio Fernandezek. Horrelako auzolandegietara etortzea edonori gomendatuko liokeela esan du: «entreenigarria da, eta zerbaitetan laguntzen ari zarena sentitzen duzu».

XIX. mendeko dorrea

Dorre telegrafikora Santa Luzia auzotik igotzen da. Garai batean behiak, ardiak edo ahuntzak soilik igarotzen ziren bide honetatik bost kilometro inguru igaro ondoren, Uzturreko San Ignacio Sanatorioa izan zenaren horma zaharrak ikus daitezke.

IX. mendearen erdi aldera, telekomunikabideek bilakaera handia jasan zuten, eta aurrerapauso handiak eman zituzten esparru honetan. Ordura arte, albiste eta berriak zaldiz iristen ziren leku batetik bestera. Mende hartan, ordea, telegrafiko optikoari esker, berriak Madrildik Irunera bi ordutan iristeko modua aurkitu zuten.

Uzturreko dorre hau 1845. urtean eraiki zuten, guda Karlistaren ondoren. Madril eta Irun hiriburuaren artean 52 dorre telegrafikoz osaturiko kate bat zegoen, eta 48. dorrea da Tolosakoa.

Urtero, 18 eta 26 urte bitarteko gazteak parte hartzen dute auzolandegietan

Dorreko konpontze lanez gain, gazteek Euskal Herriko txokoak ezagutu dituzte

1845ean eraiki zuten dorrea, eta Madrildik Irunera bidean zegoen 48. a zen

Dorrearen hormak kalitate handiko harlanduz egindakoak dira, eta ertzetan nahiz beheko solairuan leiho txikiak ditu; defentsarako gezi leihoak ziren. Goiko solairuan, egurrezko egituren bidez, Alto eta Usabal arteko Ollaun menditik bidalitako mezuak jasotzen zituzten Uzturreko dorrean, eta hemendik Andoaingo Buruntzako dorrera bidaltzen zituzten.

Aipatzekoa da, dorre telegrafiko hauek hamar urtez soilik aritu zirela funtzionamenduan, izan ere, harizko telegrafiai gaitunduen telegrafia optikoa.

● tolosa@hitza.info



Tolosako Udala

IRAGARKIA

2011ko uztailaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin 2011-2012 ikasturteko Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten.

Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun abiletan zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun abiletik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espedienteak aztertu ahal izango dute eta egokitzat jotzaten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamaziorik edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Tolosa, 2011ko uztailaren 27an
ALKATEA

Iragarki laburrak

SALGAI

● **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosan. Bi logela, egongela, sukaildea, komunak eta brastelekua dituen hormigoizko etxebizitza. Orintxe bizi-izera sartzeko moduan dago etxea. Interesa dutenek, dei dezatela 619 64 52 56 telefono zenbakira.



Aitor Regillaga tolosarra Monegroseko helmugan. HITZA

Itsaso Leundak eta Aitor Regillagak irabazi dute Monegroseko triatloi proba

Regillagak atzetik aurrerako lasterketa egin zuen; Leunda proba guztian lehen postuan ibili zen

Asier Imaz Tolosa

Ardo ona bezala, denborarekin hobetuz joaten dira hainbat kirolari. Aitor Regillagaren eta Itsaso Leundaren kasua, hori dela dirudi. Bi tolosarrek, hilaren 24an, Monegroseko (Huesca) desertuan ospatu zen distantzia luzeko triatloia irabazi zuten, eta Leundaren kasuan, erakustaldia eskainiaz.

Irteera puntuan 200 parte hartzaile bildu ziren, eta guztiek, 1.800 metro igerian, 75 km bizikletan eta 15 km korrika egin behar izan zituzten, helmugara iritsi bitartean.

Regillaga eta Leunda faborito bezala irten ziren, biek 1 zenbakia jartzen zuen dortsala eraman baituzten soinean.

Atzetik aurrera

Aitor Regillagak 11. postuan amaitu zuen igeriketa proba. Ondoren, bizikleta gainean jarri zen, aurkariak banaka-banaka gainditzeko. 75 kilometroko ibilbidean onena izan zen, partialik hoberena eginez. Korrika hasi aurretik, bigarren postuan aurkitzen zen, bi minutuko atzerapenarekin. Korrikako saioan jarri zen lehen postuan, hain zuzen ere, zortzigarren kilometroan. Aurretik gelditzen zitzaizkion zazpi kilometroko lasterketa buruan egin zituen, eta honela hel-

mugaratu zen, lehen postuan bakar bakarrik.

Hasieratik nagusi

Itsaso Leundak berriz, izugarriko erakustaldia eman zuen, lasterketa buruan izan zelarik hasieratik bukaeraraino.

Igeriketa saioko 1.800 metroak 29 minututan burutu zituen tolosarrek. Bizikleta gainean jartzen lehen neska izan zen, eta ibilbidean aldeak handitzea lortu zuen; 75 kilometroren ostean, bigarrenari 20 minutuko abantaila ateratzen zion.

Azken atalean, korrikakoan, besteekiko zuen aldeaz oharturik, probaz ahalik eta gehien disfrutatzea erabaki zuen, eta horretan saiatu zen, nahiz eta izugarriko beroari aurre egin behar izan zion.

Modu honetara, Monegroseko triatloi lasterketaren lehen edizioan bi tolosarrek lortu zuten garaipena, eta ondorioz, Aitor Regillaga eta Itsaso Leunda izan ziren podiumeko atalik gorenera igoztea lortu zutenak.



Itsaso Leunda Monegroseko. HITZA

Gernikako Arbolako lorategiak konpontzen astelehenean hasiko dira

Lanek hiru edo lau hilabeteko iraupena edukiko dute; lehen fasean egungo sarrera itxita egongo da

A. Imaz Tolosa

Gernikako Arbolako lorategiak birgaitzeko obrak datorren astelehenean, abuztuaren lehen, hasiko dira. 3-4 hilabeteko iraupena izango dute lan hauek. Lehenengo fasea gauzatzen ari den artean, gaur egungo sarrera itxita egongo da, bi hilabetez beraz. Epe horretan, sarrera Geltoki eta Batxi-

ller Zaldibia (kontrako noranzkora) kaleetatik egingo da, eta irteera berriz, San Joan kaleetik. Bestalde, zaborrontziak Gipuzkoa plazan egongo dira lanek irauten duten bitartean. Ontziak, papera eta beira uzteko edukiontzia, berriz, San Frantzisko eta Foruen Etorbidearen elkargunean egongo dira.

Egingo diren birgaitze lanen artean, argiteria hobetuko da, inguruko espaloiak zabalduko dira, aparkalekuak antolatuko dira, lorategia barnealdetik zeharkatzeko pasabideak eraikiko dira eta loreak aldatu. Honez gain, saneamendua eta ur hornidura sareak konponduko dira.

→ Laburrak

Helduen danborradan izena emateko aukera

IBARRA › Helduen danborra abuztuaren 24ean, asteazkenean, izango da aurtengo Ibarrao Jaietan. Izena emateko zerrendak Gaztetxean, Zubiaurren, Subegin, Atarin eta Danon Txokoan aurkitzen dira. Entsegua egunean bertan egingo da, 18:00etan. Elkarrekin afaldu ondoren, 22:30ean elkartuko dira herriko plazan. Bi jantzi mota eraman daitezke: ohiko berdeak edo mahoizko galtzak eta alkandora txuria daramatenak. Txapela morea eta abarrik eramatea ere eskatzen da.

Subegi elkartearen festa kubatarra, gaur

IBARRA › DJ Bull-en emanaldia 18:00etan hasiko da, bandera kubatarraren azpian. Izan ere, gaur Subegi elkartearen festa kubatarra egingo dute. Bertako jakiak jateko aukera egongo da 20:00etan, afari herrikoian. Ondoren DJ Bull-ek jarraituko du.

Arantzazura txangoa antolatu du Harizpek

TOLOSA › Harizpe jubilatua eta pentsiodunen elkarteak Arantzazura txangoa antolatu du, irailaren 9an. Bertan bazkaltzeko aukera eta dena egongo da. Arratsaldean, berriz, Zarautzen barrena ibiliko dira. Bazkideek 29 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez direnek 32. Izena emateko elkateak duen Emeterio Arreseko egoitzara joan behar da.

Asteburura begira, guardiako farmaziak

GIZARTEA › Gaur Ibarrao Iturrioz, I. egongo da guardian zabalik; Euskal Herria 3an. 943 67 09 15 da bertako telefonoa. Bihar, Tolosako M.I. egongo da zabalik, Kale Nagusia 7. zenbakian. 943 67 06 48 da bertako telefonoa. Etzi, igandean, Tolosako Olarreaga egongo da zabalik, Jose Iraola 10 zenbakian. Bertako telefonoa 943 67 06 48 zenbakian. Leitzaldean berriz, gaurtik igandera, Lekunberriko M.A. Azpiroz egongo da guardian. Aralar kalean aurkitzen da farmazia hau, 43. zenbakian. Telefonoa berriz 112 da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

BRONTXILLO Harategia • Itsaskide

943 69 68 23
Santio kalea, 4
- Villabona -

Santioak
ondo pasa!

ЯК Taberna

- Gosariak • Plater konbinatuak
- Hanburgesak • Sandwichak
- Otartekoak

Irekita goizeko 9:00etatik

- Kale Nagusia 2 •
- Villabona •

Bi eguneko festa izango da San Inazio auzoko jaietan

Bihar 11:00etan hasiko dituzte auzoko jaiak; futbola, haur jolasak, afaria, sokatira, musika,... izango dira



Futbola izango da. I. TERRADILLOS

E. Maiz Ibarra

Ibarrako San Inazioko auzotarrak urteroko moduan, jaiak ospatuko dituzte. Biharko izango dute egun handia, eta igande eguerdian amaituko dituzte jaiak.

Bihar goizean haurrak izango dira jaietako hasiera emango diete. Besteak beste, jokoak eta tailerrak izango dituzte. 17:00etan, ezkonduen eta ezkongabeen arteko futbol partida jokatuko dute, eta 19:00etan sokatira izango da. Ibarrako neskek, mutilen aurka

lehiatuko dira. Auzotar guztiak, afarian bilduko dira. Jatekoak bakoitzak arduratu beharko du, postrea eta edaria aldez, festa batzordeak jarriko ditu. Ondoren, Dja izango da.

Igandean, pintxoak izango dira jaietako amaiera emateko.

↓ San Inazio auzoko jaiak

BIHAR, UZTAILAK 30

- 11:00. Haur festa: jokoak, tailerrak,...
- 17:00. Futbol partida: ezkongabeen ezkonduen aurka ariko dira.
- 19:00. Sokatira lehia egingo dute: Ibarrako neskek Ibarrako mutilen aurka.
- 21:30. Herri-afaria. Aferia nor-

berak eraman behar du, postrea eta edaria. Festa Batzordeak jarriko ditu.

- **Ondoren.** Musika DJ baten eskutik.

ETZI, UZTAILAK 31

- **09:30.** Meza.
- **Ondoren,** pintxoak eta jaietako amaierako traka egingo dute.

Santio eta Inazio batuz

Gaur kuadrila eguna eta bihar erromeria eguna ospatuko dituzte; igandean erroskila erre eta festak bukatuko dira

Eneritz Maiz Amasa-Villabona

Atzoko atsedeen egunaren ostean, indar berrituta daude billabonatarak. Gaurtik igandera bitartean, hiru eguneko festari aurre egin beharko diote. Santio jaiak, San Inaziorekin lotuz amaituko dituzte. Gaurko kuadrila eguna, eta biharko erromeria egunaz gain, ekitaldi betetako igandea izango dute.

Gaur besteak beste, kuadrila bazkaria, Triki Ta Ke taldearekin dantzaldia eta zezen zuskua izango dituzte.

Bihar, goizean goiz hasiko dira plater tiraketarekin. Haurrek berain txokoa izango dute jolasekin eta 17:00etatik aurrera erromeria-ri hasiera emango diote. Kalejira, sagardo eta pintxo dastatzea, Agurtzane eta Ion Elustondorekin erromeria, euskararen aldeko



Asteazkenean kontzertuak izan ziren; irudian 121 Krew taldea. HITZA

topa Porrotx pailazoarekin, eta afaria egingo dituzte. Burruntzian erretako bildotsa izango da menu nagusia. Isk&bila txaranga giroa alaitzen ibiliko da. Bertso saio bikaina ere izango da.

San Inazio egun betea

Dianarekin esnatuko da herria festetako azken egunean. Haur eta helduentzako sokamuturra, eta haur eta helduentzako irristaketa lasterketa herrikoia ere egingo da. Erreboteko partidak ikusitako aukera egingo da.

Egurditik aurrera haurren jolas parkea egongo da Malkar plazan. 18:00etan berriz, Irrien lagunak klubeko pertsonaien kale antzerkiarekin gozatzeko aukera izango da. Garai berean, harriari tiraka ibiliko dira Aiztondo-Oarso, Orío eta Urretxu taldeetako giza probako kideak. 20:00etan Remi Ayestaran zenaren bigarren urteurrenaren omenaldia egingo dute, bere izena daraman ibilbidetan. 00:00etan berriz, erroskila erreko dute astebeteko festetako amaiera emateko.

↓ Egitaraua

GAUR, UZTAILAK 29

Kuadrila eguna

- 14:30. Kuadrilen bazkaria Etxeondoren. Ondoren, kalejira Incansables txarangarekin.
- 20:00. Dantzaldia Errebote plazan, Triki Ta Ke taldearekin.
- 00:00. Zezen zuskua Errebote plazan.
- 00:00. Dantzaldia Errebote plazan, Triki Ta Ke taldearekin.

BIHAR, UZTAILAK 30

- 09:00. Plater tiraketa, Izarren izango da.
- 10:00. Xake Jokoa Txistulari plazan.
- 11:00. Haur jolasak, tailerrak eta apar festa, Arroako plazan.
- 17:00. Erromeria eguna, *Maíta nazazu gutxiago, goza nazazu gehiago* lemapean.

- 17:30. Kalejira Lizartzako Isk&bila txarangaren eskutik.
- 18:00. Sagardo eta pintxo dastatzea.
- 18:30. Erromeria Agurtzane eta Ion Elustondorekin.
- 19:30. Euskararen aldeko topa, Porrotx pailazoarekin.
- 19:45. Erromeria Agurtzane eta Ion Elustondorekin.
- 21:00. Aferia, bildotsa burruntzian, Isk&bila txaranga alaiturrik, Errebote plazan.
- 22:30. Bertso saioa Errebote plazan: Amaia Agirre, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Maialen Lujanbio eta Sebastian Lizaso bertsolariekin. Gai jartzailea: Alaitz Sarasola izango da.
- 00:00. Arrabots taldearekin erromeria.
- 02:00. Imuntzo eta Beloki taldearekin erromeria.

UZTAILAK 31, IGANDEA

- 08:00. Diana kalejira, herriko dultzaineroekin.
- 08:30. Sokamuturra herriko dultzaineroekin alaiturrik, Olaederra kiroldegian ondoan.
- 09:30. Haurrentzako sokamuturra.
- 11:00. Irriaketa lasterketa herrikoia haurrentzat, Eroskitik.
- 11:30. Irriaketa lasterketa herrikoia helduentzatzat, Eroskitik.
- 11:30. Errebotea: Villabona - Hazparne.
- 12:00. Haurren jolas parkea, Irrien lagunaren eskutik: Pupu eta Lore puzgarriak, Largabista eta Mari motots txirrista, porrotx erraldoia, tailerrak, itxuraldatze, txapa eta giltzatzako tailerrak, Malkar plazan.
- 13:00. Kuadrilen arteko baltsa jaitsiera, Ori ibaian.
- 16:00. Haurren jolas parkea, Irrien lagunaren eskutik, Malkar plazan.
- 18:00. Irrien lagunak klubeko pertsonaien kale antzerkia.
- 18:00. II. San Ignazio Giza Proba saria: Aiztondo-Oarso, Orío, Urretxu.
- 20:00. Remi Ayestaranen II. urteurrenaren omenaldia, «Remi gogoan» ekimenaren eskutik, haren izena daraman ibilbidetan.
- 00:00. Erroskilaren agurra egingo dute, Oinkari dantza taldearen eskutik.
- 00:30. Dantzaldia Errebote plazan Drindots taldearekin.

Kontseju Tatetxea
Hirigunea, 1. 20493 Elduain

Eguneko menuak
Ospakizunak
Asteburuko menu bereziak
Plater konbinatuak

943 68 33 27 / 656 710073

EIZMENDI
ARMATEGIA • KIROLDENDA

• Kirol gaiak konpontzeko lantegia
• Aukera handia eskopeta eta kartutotan

ONDO PASA JALETAN!

Berria, 19 • Billabona • Tel.: 943 69 26 23 • Faxa: 943 69 30 44

IRV ALDETA EDARITEGIA

Larunbat gauean DJ BULL

Kale Berria, 15 - Villabona • Tel.: 943 69 09 41

→ Laburrak

Torreren urteurreneko bazkarirako txartelak

LEITZA ▶ Abuztuaren 6an Torre tabernaren XVII. urteurrena ospatuko dute. Horretarako bazkaria egingo dute Torren, bertan. Menua honakoa izango da: entsalada, txekor saiheski errea, izozkia, kafea eta kopa. Txartelak Torren eskura daitezke 15 euroren truke, abuztuaren 5a baino lehen.

ESAI Ten mendi martxa Leitzatik pasako da

LEITZA ▶ ESAITek Euskal Herriko selekzioa aldarrikatzeko mendi martxa bat egingo du, eta abuztuaren 5ean Leitzara iritsiko da mendi martxa hau. 15:30ean mendira joango dira leitzarrek mendi martxakoei ongi etorria egitera. 20:00etan kalgijira eta harrera egingo dute herriko plazan.

Udal bulegoak itxita egongo dira udan

LEABURU-TXARAMA ▶ Leaburu-Txaramako udal bulegoak itxita egongo dira abuztuaren 12tik irailaren 4a arte. Irailaren 5etik 8ra bitarte 10:00etatik 13:00etara egongo dira zabalik. Irailaren 12tik aurrera ohiko ordutegian hasiko dira lanean. Uli Mankomunitateko gizarte zerbitzuen bulegoa itxita dago abuztuaren 12ra arte, eta abuztuaren 30etik irailaren 6a bitarte ere itxita egongo da. 16an eta 23an Txaraman izango da.

Sarriopapelen egindako inbertsio berriak «positibotzat» jo ditu LABek

Sarriopapel enpresak 4,2 milioi euroko kostua duen papera metalizatzeako makina berri bat eskuratu du

Maiar Ugartemendia Leitza

Sarriopapel enpresan inbertsio berriak egiten ari dira. Inbertsio berri horiek direla eta, enpresak papera metalizatzeako makina berri bat eskuratu berri du.

Makina hori 2012. urtearen hasieran jarriko da martxan. Honekin, paper metalizatuaren produktzioa %70 areagotuko dute. Hau da, urtean 10.000 tona produzituzetik, 17.000 produzitzera pasako dira makina berri horri esker.

Torraspapelen barruan integratuta dagoen enpresak 4,2 milioi euroko inbertsio egin behar izan du, makina hau eskuratu ahal izateko.

Sarriopapelen lau paper mota egiten dira: metalizatu, termikoa, kalkoak eta emate agiriak egiteko papera eta distiradun papera.

LAB sindikatuko Josetxo Zabaletak krisi garai honetan, «herriarentzat eta inguruko herrirentzat» inbertsio berriak egitea «oso positiboa» dela adierazi du. Momentu honetan 460 langile daude Sarriopapelen, eta Leitzako eta inguruetako familia askoren diru iurria da. 460 langile horietatik 330 finakoak dira, eta 100 langile inguru bost urteko errelebo kontratuarekin daude. Inbertsio berri hauei esker langileak «pozik eta gustura» daudela uste du Zabaletak. Honekin «lanpostuak eta etorkizuna» ziurtatzen baitira.

Zabaletaren ustez ezinbesteko da, «enpresaren bidez sortzen den diru kopurua, inbertsioak egiteko erabiliztea». «Aurrera jarraitze» inbertsioak egin behar baitira.

Paper termikoa nagusi

Sarriopapelen produzitzen den paperetik %69, paper termikoa

da. Paper mota hau teknologia berriengatik «desagertzen» ari da, beharaka doa; baina, hau ez da Sarriopapelen soilik gertatzen, teknologia berriak «leku guztietan» ari baitira eragiten.

Paper mota honen produktzioak behera egin badu ere, paper termikoaren inguruan inbertsioak egiteko asmoa dago Sarriopapelen, eta hau ere «oso garrantzitsua» eta «positiboa dela» uste du Josetxo Zabaletak, LABeko ordezkariak.

Gauzak honela, garai zail hauean aurrera egiteko aukera dute Sarriopapelen, eta inbertsio berri hauei esker Leitzaldeko familia askok lanean jarraitzeo aukera izango dute.



Sarriopapel, Leitzaldeko enpresarik garrantzitsuenak da. A. MAZ

Presoei elkartasuna adierazteko eguna ospatuko da Leitzan

Elkartasun eguna abuztuaren 10ean ospatuko da; kantu bazkarirako txartelak Torren eros daitezke

M. U. Leitza

Abuztuaren 10an hasiko dira ofizialki Leitzako festak, baina egun horretan ospakizun berezi bat ere izango dute. Herrian ez daudenak gogoan izango dituzte egun horretan.

Elkartasun eta kantu eguna festen programako ekintzen artean kokatuta dago. Etxerat elkarrekin egun guztiko festa antolatuta du. Lehenik, 13:00etan plazaatik manifestazio bat abiatuko da.

14:30ean bazkariarekin jarraituko dute. Kantu bazkari bat egingo dute festetarako jartzen duten karpan. Menua, berriz, honakoa izango da: urdaiazpikoa, pate, piper beteak, betizua burruntzian erreta letxugarekin, izozkia, kafea eta kopa. Txartelak 25 euroko kostua du, eta atzotik abuztuaren 9ra bitarte Torren eskuragai izango dituzte bertara joan nahi dutenek.

Arratsaldean, 18:00etan presoen aldeko brindisa egingo dute, herriko plazan. Honekin emango diete amaiera Etxeretek antolatutako Elkartasun eta Kantu egunari.



harpidedun izateak badu saria

saridunak

1 Bi sorta

Arbizu hestebeteak
etxearen eskutik bi sorta

Arbizu • Tel.: 948-46 06 28
www.embutidosarbizu.com
www.euskalherriko plaza.com



Mari Karmen Agote (Villabona)
Xanti Urizar (Tolosa)

2 Garagardoa

Pagoa
Euskal Herri berriko garagardoa

Oiartzun
Tel.: 34 619-42 11 53
www.pagoabeer.com
www.euskalherriko plaza.com/pagoa



Egari Taberna (Zizurkil)
Maialen Aibaigar (Villabona)

3 Bi sorta

Erlandere
Nafarroako ezti ekologikoaren bi sorta

La Regueta, 1 • Arbeiza
Tel.: 686-37 32 41
erlandere@hotmail.com
www.euskalherriko plaza.com/erlandere



Regina Tolosa (Amezketza)
Maite Zubeldia (Alegia)

4 Bi elastikoa

TTAK
etxearen eskutik bi elastiko

-Neska S-
www.euskalherriko plaza.com



Bakartxo Larrea (Ikaztegieta)
Laskorain Ikastola (Tolosa)

Saridunek etxean jasoko dituzte opariak

harpidedunen **TXOKOA hitza** info

Franconi Fundazioaren etxean bizi diren hiru moja salesiarrak aurki joango dira bertatik. Herriarekin lotura estua izan dute, besteak beste, katekesiaren eta aisialdiaren arloan.

32 urtetako aztarna utzi dute

Imanol Garcia Alegia

Franconi Fundazioaren etxea hutsik geratuko da abuztuan. Egun bertan bizi diren hiru moja salesiar ordenaren beste etxe batzuetara joango dira. 32 urte daramatzate bertan salesiarrak, baina ez dira beti moja berdinak izan bertan.

Rosario Torres da hasieratik Alegian dagoena; izatez Kordobakoa (Espainia), Madrilen dagoelauneko ebakuntza batetik sendatzen. Arantza Azpiazuk, jaiotzez Ezkio-Itsasokoak, 14 urte daramatza Alegian, baina ez denak jarraian. Asun Salaberrik, Aramaion jaiokak, azken 18 urteak Alegian egin ditu.

Etxea dagoen lurra Eusebia Ignacia Franconi Zuaznabar altxotarrak utzi zituen, 1915ean, bere testamentuan, Altzoko eta Alegiako neskek eskola bat izan zezaten. Fundazioa patronatu batek kudeatzen du, eta bertako partaide dira Altzoko eta Alegiako udalak eta bi herrietako parrokoak.

Salesiarren aurretik, baina, beste moja batzuk izan ziren bertan, Bordeleko Familia Sakratukoak. Eskola jarri zuten martxan, garai hartan herriko bakarra, harik eta 1960. urtean joan egin ziren arte. Gero, urte batzuetan, irakasleak izan ziren bertan, egungo eskola egin zen arte.

Erlijioa, solfeoa, aisialdia...

Salesiarrak 1979an sartu ziren etxean. Orduan parrokoa zen Juan Martin Zuriarrainek Goztaitegira eskaera egin zuen, etxe horretara moja batzuk joan zitezten, pastoral arloan laguntza emateko. Ordudunik, parte hartzea izan dute Alegiaren bizitzan. Eskolan erlijioa ematen zuten, haurrei katekesia eta gazteei sendotza eman, katekistak prestatu,



Asun Salaberri eta Arantza Azpiazu, Franconi Fundazioaren etxearen sarreran. I. GARCIA

solfeo eta mekanografia erakutsi... «Aurten ere eman dugu katekesia, 50 neska-mutilei», azaldu dute Azpiazuk eta Salaberrik. «Fundazioa sortu zuen andreak idatzita utzi zuen bere testamen-

Etxea uztera zihoazela jakitean, hainbat herritarren maitasuna jaso dute

tuan, katekesia euskaraz emango zela, eta auk horrela egin dugu», gaineratu dute.

Aisialdi arloan ere aritu dira lanean. «Alegiako eta inguruko herriko haur eta gazte guztiak pasatu dira hemendik», diote. «Larunbat eta igande arratsaldeak hemen pasatzen zituzten. Filmak

jartzen genizkien, mahai jokoe-tan aritzen ziren, mahai tenise-an...».

Etxea uztera zihoazela jakitean, hainbat herritarren maitasuna jasotzen ari direla diote. «Guretzako hemen egotea oso espezializazioa ona izan da. Oso pozik egon gara eta pena handia ematen digu joateak», esan dute.

Bazkaria kultur etxean

Etxea pixkana husten ari da. Aste honetan, bertan zeuden hainbat mahai, aulki eta arbela Afrikara bidali dituzte. Alegiako parrokoak, Joxi Eguzkitzek, harremana du zenbait misioarekin eta hara eraman dituzte. «Eskolak lurrean eserita daudela ematen dituzte han, eta paretan idazten dute, arbelik ez dutelako. Beraz, hemen

erabili ditugun altzariak beste leku batzuetan aprobetxatuko dituzte», azaldu dute.

Abuztuaren 14ean hiru moja salesiarrei agur esateko ekitaldia antolatu dute Alegian. Lehenengo meza ospatuko dute Joan Bataiatzailea parrokiari, 12:30ean. Ondoren, bazkaria egingo dute kultur etxean. Bazkarian parte hartu nahi duenak, txartela erosi behar du hilaren 31 baino lehen. Horretarako aukera dute, besteak beste, parrokiako sakristian, Landanean, Maitenean, Maritxunean eta Tobarrenean.

Aurrera begira Franconi Fundazioaren etxeak izango duen erabilera ez dago erabakita. Patronatuan darabilten asmoetako bat bertan osasun etxe berri bat egitea da.

→ **Laburrak**

Hiru jaialdi, asteburuan, Joxean Tolosa Txapelketan

AMEZKETA › Buruz buruko Joxean Tolosa Pilota Txapelketako beste hiru jaialdi izango dira asteburu honetan. Gaur, 22:00etan, hiru partida izango dira: kadeteetan, Erasun eta Agirre elkarren aurka; gazteetan, Elustondo-Unanua; eta nagusietan, Alberdi-Belloso. Bihar, 16:00etan, bi partida jokatuko dituzte: gazteetan, Labaka-Beraza, eta nagusietan, Azpiazu-Uriona. 22:00etan, beste hiru partida antolatu dituzte: kadeteetan, Egiuren-Iurretagoiena; gazteetan, Murgiondo-Gallurralde; eta nagusietan, Urretabizkaia-Arratibel.

Upategi batera bidaiari antolatu du udalak

AMEZKETA › 60. urtetik gorako herritarrentzat bidaiari antolatu du udalak Arabako Errioxara. Abuztuaren 7an egingo dute bidaiari. Irteera 08:30ean egingo dute. Bidean gosari txiki bat egingo dute eta Labraza herria bisitatu dute. 13:00etan Bilar herrira iritsiko dira eta Viña Laguardia upategia bisitatu eta bertan bazkalduko dute. 17:00etan Haro herrian geldituko txiki bat egingo dute Ametzetara bidean. Bidaiarako izena eman daiteke abuztuaren 2, 3 eta 4ean, 09:00etatik 14:00etara, udaletxean. 27 euro ordaindu behar da pertsonako.

Alejandro Goyaren idiek apustua egingo dute Aian

TOLOSA › Alejandro Goya tolosarrak idi apustua egingo du Jabier Manterola aiarraren aurka, bihar, 22:00etan. Aiako probalekuan egingo dute norgehiagoka eta hiru mila euro izango dituzte jokoa. *Urgain* izeneko harria erabiliko dute, 1.500 kiloko, eta 112 kiloko plaka erantsiko diote.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

Alkateen elkarrizketak →

Orexarekin amaitu da alkateen elkarrizketen sorta

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA ekainaren 15ean hasi zen alkateen elkarrizketak argitaratzen

Erredakzioa

Gaurko Orexako alkatearen, Eneko Maiozen, elkarrizketarekin amaitzen da TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak ekai-

naren 15ean hasitako alkate izendatu berrien elkarrizketen sorta.

Pasa den maiatzaren 22ko udal eta foru hauteskunde ondotik, gobernu aldaketak eman dira Tolosaldeko zein Leitzaldeko herrietako udal gehienetan, eta alkateek euren asmo, proiektu eta irizkiak plazaratu dituzte aste hauetan HITZAN.

Parte hartzea, ardatz

Argitaratutako elkarrizketa guztietan oro har, parte hartzearen

eta batzorde eraketan inguruan hitz egin dute alkateek luze eta zabal.

Alkate gehienak, gainera, berriak dira, eta hasiberriak badira ere, lanerako gogoz daudela irakurri ahal izan dugu elkarrizketa bat baino gehiagotan.

Plan orokorra

Etorbizuneko proiektuei begira plan orokorrak egitearen garrantziaz hitz egin dute alkateek, eta baita proiektu zehatzagoez ere

hainbat herritan: Alkizan Juane-na Etxea bukatzeko egitasmoa ekarri zuen gogora Jon Umerezek, Leaburu-Txaramako Luixa Uzkudunek ubideak berritzeko beharraz hitz egin zuen, Gazteluko Mikel Bellosok harrobiko bete lana bukatuko dutela argitu zuen, Asteasuko Pili Legarrak herrian duten garraio publikoaren gabezia konpontzen saiatuko direla aipatu zuen...

Abiadura Handiko Trena ere izan dute hizpide hainbat herri-

tan, eta Hernialdeko Igaro Baldak, esaterako, honek herriari sorrarazten dion kezka nabarmendu zuen.

Herrigintza

Esan bezala, hala ere, herri guztietan aipatu dituzte herrigintza egiteko eta batzordeetan, herritarrekin batera, lan egiteko beharra.

Auzolana egitearen apustua egingo dute, beraz, Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietan.

Eneko Maioz ◊ Orexako alkatea

«Herria suspertzea eta bizirik mantentzea da lehentasun nagusia»

Maier Ugartemendia Orexa

Eneko Maioz (Donostia, 1984) «gogotsu» dago herriaren alde lan egiteko.

Ez dauka beldurrik, Orexa herri aktiboa da eta jendea lanerako prest dago; gainera, taldearen laguntza osoa ere badu. Orexan herritarrez osatutako zerrenda bakarra aurkeztu zen; bost zinegotzi daude, eta bostak Bilduk eskuratu zituen.

Dagoeneko aste batzuk daramatzazue udalean sartuta. Zer moduz egokitu zara lan berrira?

Pixkanaka-pixkanaka ari gara eritimoa hartzen. Kostata, baina, gustura. Eguneroko eritimoa hartu behar da. Bilerak asko daukagu, gauza asko, eta batzuetan ez dakizu oso ondo zeini eman lehentasuna eta zeini ez, baina pixkanaka ari gara hori ere ikasten.

Nolatan animatu zinen?

Herritarren artean talde bat osatu genuen. Alkatearen irudia ko-

rapilatsua izaten da, eta azkenean nik aurrerapausoa ematea erabaki nuen. Taldea ikusita, banekien lagunduko zidatela eta animatu egin nintzen.

Herritarrez osatutako zerrenda bakarra izan zineten, emaitzen zer balorazio egiten duzu?

Oso ona. Herritarren zerrenda bakarra izan arren, jende asko joan zen botatzera, normalean baino gehixeago. Gainera, zerrenda irekiak ziren, eta oso ondo azaldu behar izan genien dena herritarrei. Hori dena kontutan hartuta, oso balorazio ona, ezin gara kezkatu.

Zuen zerrendak irekiak ziren eta pertsonak bozkatzaren zeren zerrendak bozkatu beharrean?

Bai, pertsona botatu behar zen. PPko zerrenda ere egotean jendea dena ondo azaldu behar zitzaien. Bost zinegotzi ziren, baina, zerrendako lau bakarrik aukeratu behar ziren. Orduan, denek lehenengo lauak aukera-

tzen bazituzten, eta PPk bi lortzen bazituen, zinegotzia lortzen zuen. Hori dena azaldu behar izan genien herritarrei, eta azkenean dena espero bezala ateratu zen.

Zer egoeratan aurkitu duzue udala?

Ondo, alde horretatik zorrea daukagu. Aurretik udalean egondakoekin harreman ona daukagu. Eta, horrek lana asko errazten digu. Guk jarraipen bat egin behar dugu, eta gure ildoak pixka bat markatu behar dugu. Baina, aurretik lan asko eginda daukagu. Orain ere horretan ari gara, martxan dauden gauzei jarraipena ematen, eta aldi berean, aurrerapauso batzuk ematen.

Martxan dauden proiektu horiekin jarraitzeko asmoa daukazue, beraz?

Bai, proiektu horiekin ari gara martxa hartzen. Laguntza batzuk eta zintzilik daukagu, eta martxan dauden proiektu horiek aurten itxi nahi ditugu. Oraingo, proiektu horiekin jarraitzeko asmoa dugu.



M. UGARTEMENDIA

Zein izango dira hurrengo lau urteetako proiektuak?

Proiektu asko daukagu, baina gauzak sortu ere egiten dira. Adibidez, ostalua itxi egin da, eta orain lehentasuna taberna da. Bestalde, ume asko daukagu herrian, eta gai horretan zerbait gehiago planteatzea pentsatu behar dugu. Herriko negozioak ere lagundu nahi ditugu: taberna, kooperatiba... Azkenean, herria pixka bat suspertzea eta bizirik mantentzea da lehentasun nagusia.

Orexa herri oso herri aktiboa dela esandaiteke.

Bai, alde horretatik oso erraza

daukagu. Jendeak parte hartzen du. Gaur daukagu lehenengo herri bilera, eta espero dugu jende askok parte hartzea bertan. Jendea gogotsu dago. Herriak ondo erantzun du.

Orduan, parte hartzea bultzatuko duzue?

Parte hartzea betidanik egon da Orexan. Herri bileren sistema aspalditik dator, eta horrek asko laguntzen digu guri. Ez da udal txekak zer pentsatu duen bakarrik, askotan kanpotik gauzak beste modu batera ikusten dira. Gainera, jendea prest dago lan egiteko eta laguntzeko.



HITZAK harpidedunentzat **bi afari pare** ditu

Erromeria eguna
Villabonan

- Iru Aldeta taberna (Villabona)
- Izaskun Zarategi (Villabona)

sarrerak jaialdian bertan eskura ditzazkezu

sarrerak



Uztailak 30 larunbata • 21:00etan Errebote plazan

hitzak hitza



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Baliarrain,
Belauntza, Berastegi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): 902 82 02 01

Agurrak



Zorionak Oskar!

Oskar Zelarain Ortiz (Villabona). Topa zuenatik! Jaietan ere zuekin gaude! Maite zaituztegu!



Zorionak Oskar!

Eutsi goiari! Osasuna, maitasuna eta askatasuna!



Zorionak Aitatxo!

Abuztuaren 2an zure urtebetetze. Maite zaitugu. Segi horrela, jattorra-jattorra. Muxu potoloak!



Zorionak Iñigo!

Iritsi da zure urtebetetze eguna, Sugaartxok ere urte t'ardi. Ederra aukera handiki ospatzeko agurrekin eta inguruan dituzuen guztiekin. Ibarrik urte askotako esaten dizuegu amak eta Josuk.



Zorionak!

Gaur 50 urte betetzen dira. Atzo izan zela dirudi, kar, kar... Zorionak zure seme-alaba eta biloben partetik.



Promozio berria

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com